

Joxan Rekondo izendatu dute Hernaniko Alkate, Diputazioan, eta elkarritzeta politikoa agindu du inbestidura ekitaldian

■ Rekondok 7 boto izan zituen, Morcillok 6 eta Mercadok 2 ■ Korporazio berria Diputazioan osatu zen "seguritate arrazoiengatik".

ATZO eguerdia ezkerotik Joxan Rekondo da Hernaniko Alkate berria. Goizeko 10:00etan zen Udaletxe osaketa egiteko Hernanin, Udaletxeko Pleno aretoan, baina, seguritate arrazoiak argudiatuta, EA-EAJ, PSE-EE eta PPko ordezkariek ez ziren azaldu, eta Udal osaketa Diputazioan egin zen gero.

Joxan Rekondori EA-EAJ koalizioko 7 zinegotziengako bota eman zioten Alkatetza, (Jose Ramon Lasartek ezin izan zuen Udal osaketan izan). Jose Morcillok 6 boto jaso zituen, PSE-EEren 4 eta PPko 2, eta Txema Mercado EB-IU kandidatuak 2 boto jaso zituen, hirugarren zinegotzia hartu ez zutelako.

Hernaniko Alkate izendatuta egin zituen lehenengo hitzetan, Joxan Rekondok esan zuen



Joxan Rekondo Korporazio berriak Hernaniko Alkate izendatu ondorenean.

penagarria zela Udal osaketa Diputazioan egin beharra, baina, seguritate arrazoa horretara behartu duela, 1995ean gertatu zena ebitatzeko.

Legitimitatea murriztu, baina, ez anulatu

Rekondok aitoritu zuen Udal osaketa horretan parte hartu nahi izan duten batzuk ez zeuden han eta horrek legitimitatea murriztu egiten duela "baina, ez anulatu". Herriko Alkate berriaren esanetan, atzoko egunak erakutsi zuen konbinentziarik eza dela Hernaniko arazo nagusia eta hori konpontzeko elkarritzeta politikoa agindu zuen astelehenetik aurrera. Bide horretan gainerako alderdien laguntza ere eskatu zuen Rekondok. □

Dagozkien postuak kentzea eta berak Udaletxetik botatzeko bidean kolaboratzea leporatu die Bildu Hernanik gainerako alderdiei

■ "Udal ireki eta demokratikoa" bultzatzeko lan egingo dutela esan zuten atzo, Udaletxeko pleno aretoan emandako prentsaurrekoan.

GOIZEKO hamarrak aurretik asanblea izan zen Udaletxeko arkueetan Bildu Hernani plataformak deitura, eta hamarretako berrehunen bat lagun elkartu ziren Udaletxeko Pleno aretoan, inbestidura ekitaldia zelata. Bildu Hernaniko zerrendako zazpi hautagaiak bertan ziren eta IU-EBko bi hautagaiak ere azaldu ziren. Beste alderdietako hautagaiak azaldu ez zirenez ez zen inbestidura ekitaldirik izan eta Bildu Hernani plataformako hautagaiak prentsaurrekoeman zuten, Udaletxeko Pleno Aretoan bertan.

Plataformaren izenean Mertxe Etxeberriak esan zuen lau urtean egoera asko aldatu dela eta Estatu Spainolak "herriko sektore eta



Bildu Hernaniko zerrendakideak atzoko prentsaurrekoan, Udaletxean.

erakunde dinamikoenak" eraso dituela. Zerrendarik botatuena Bildu Hernani plataformarena izan arren Udaletxetik bota egin dutela salatu zuen Etxeberriak eta estrategia horretan gainerako alderdiak kolaboratu dutela "aktiboki edo pasiboki". Manuel Frailek gaineratu zuen oso hunkigarria izan zela "ahotsik gabe utzitako herriaren parte bat" Udaletxera azaldu izana "pakean eta demokratikoki bere eskubideak defendatzera". Esan zuen ulertzten zuela beste alderdiak ez azaldu izana "badakitelako iruzur bat dela hau eta ez dagokiena hartuko dutela". Frailek beste alderdiekin hitz egiten segiko dutela esan zuen eta Udaletxetik kanpora ere lanean segiko dutela. □

BASERRIKO SAGARDOA

Goiko Lastola Sagardotegia
San Antonio jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Sagardogintza mantendu duten baserritarren omenez.

EREÑOZU AUZOA
TEL: 943 553272
HERNANI

LAN ESKAITZA
Guarderia eta zentru publikoetako deialdiak laster
HAURRAK ZAINTEKO PERTSONALA
Haurrak zaintzeko L.H.2/F.P.2 derrigorrezkoak
Informa zaitez: 943 444 509

TXILIBITA TABERNA
San Antoniotan hamaiketakoak eta bazkariak, 3 egunetan.
Ereñotzu Auzoa-943 33 60 61

SANTA BARBARA
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 ☎ 943 551139 / 943 551979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2.eskukoez aldatzen ditugu

| | | |
|---|----------|--------------|
| Jeep Cherokee 2.5 | TDI | SS-BB |
| SAAB 2000 Coupe | Diesela | 1.995urtekoa |
| Fiat 1 - | Diesela | GI-AY |
| Opel Astra | Sport | NA-AK |
| Renault Megane Coupe | Diesela | SS-BJ |
| Renault Express | Diesela | SS-AS |
| Lada Niva | Gasolina | SS-AP |
| 1.000 eta 2.000 eurotan beste hainbat kotxe | | |
| ...eta hainbat kotxe merke | | |

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarte. Errakaztia. Argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoitza: Larramendi 11. Tel.: 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: kronika@topaginea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.

Inauguratu dute Alde Zahar berritua

ALDE Zaharreko obren hirugarren eta azken fasea ostiralean inauguratu zuten, Urbia kalean, Plaza Berri ondoan. Zinta mozten Mertxe Etxeberria Alkatea, Manuel Fraile hirigintza zinegotzia eta Gregorio Zubillaga, omendua izan ziren. Ondorenean, txokolata da, pintxo jatea eta trikitixa izan zituzten auzotarrek eta giro polita sortu zen.

Kaxko auzo elkartearren izenezan, Juan Bautista Biurrenak esker oneko hitzak izan zituen. Eskerrak eman zizkien bizilagunei, bi urte eta erdian obrek sortzen duten nahas mendua aguantatzeagatik; eskerak eman zizkien obran aritutako langileei, lana ondo egiteagatik eta inolako liskarrrik gabe, gainera; eta eskerrik eman zizkion Udalarri, obrak egiteagatik eta Alde Zaharra "hain dotore uzteagatik".



Zinta mozteko unean Udal ordezkarriak eta Gregorio Zubillaga.

Lau omendu

Kaxko auzo elkarteko larogeitik gorako auzotarrak omendu ditu inaugurazio bakoitzean. Lau auzotar omendu zituen joan den ostiralean: Bixente Gerriko, Mari Carmen

Maidagan, Gregorio Zubillaga eta Felixa Eguren. Hiruk ez zuten agertzerik izan eta Gregorio Zubillagak moztu zuen zinta eta gainerakoan famiartekoek hartu zituzten loreak. □



Mikel-Joxe Karobi elkarteko museko Txapeldun. Bukatu da Karobi elkarteko mus txapelketa eta joan den ostiralean banatu zituzten sariak, elkartean bertan, afalondoan. Mikel-Joxek irabazi dute; bigarren, Gerardo-Xanti gelditu dira; hirugarren, Arantxa-Luis; eta laugarren, Pascual-Blas. Aurten, 26 bikotek hartu dute parte musean eta Karobiko arduradunen hitzen "oso giro ona jarri dute soziedadean". □

Argazki rallya gaur

HIRUGARREN argazki rallya egingo da gaur Hernanin. Nahi duenak parte hartu lezake eta izena 09:30etatik 10:30etara eman behar da Udaletxeko arkupeetan. Antolatzaleek argazkitan atera beharreko gaiak eta karreteek emango dizkiete parte hartzaleei. Gazteen eta helduen mailak egongo dira. □

Ur Ludoteka gaur

KIROLDEGIKO igerilekuaren denboraldiko azken ur ludoteka izango da umeentzat. Goizeko 10:30etatik 12:30etara jokoa egongo dira jolas egindako nahi duten umeentzat, eta monitoreak ere bai laguntzeko. Igeri egin nahi duenak ere aukera izango du kale batzuk libre utzik baitira. □

ALAR TABERNA

ALAR TABERNA

Zapa 8 - Tel. 943 33 15 06

HERNANI

KixKal
Taberna
nausia 15

Egunero pintxo aukera ederra. Asteburueta pintxo beroak ere bai.

■ PELOTA

Donostia 1-Hernani 2

NAHICO lan izan zituen Hernanik Altzan.. Kadeteetan 22-11 irabazi, jubenilek 22-2 galdu eta nagusiek 22-18 irabazi.

Gaur paleta gomako finalurrekoak dira kirolegian, 12:00etan. Manzisidor-Martinez/Lasa-Arozena da partiduetako bat. □

VGALDETXO

Jatetxea



Gaur, 17:00etatik aurrera festa:
 - San Antoniotako pelota finalak
 - Bertsolariak: Imanol Lazkano eta Xabier Legarreta.
 - Erromeria: Epelde eta Larrañaga
VGALDETXO Jatetxea
 Ereñotzu auzoa - Tel.: 943 55 02 40



Manuel Huizi, Joxe Legarretaren omenezko bertsos emanaldian. Auzoari eta herriari buruz jarritako bertsos kantatu zituzten bertsolari gazte eta helduek ostiralean, San Antonio elizan.

Sagardo probaketa eta bertsosaioa San Antoniotako azken egunean

EREÑOTZUKO San Antoniotako sartu dira azken egunean. Goizeko 11:30etan, sagardo probaketa dago Ur Mian eta 12:00etan, Ttarla dantza taldearen emanaldia. Arratsalde-

an, Bertsos jaialdia dago 18:30etan: M. Lujanbio, J. Agirre, E. Eizagirre, JM Irazu, U. Iturriaga eta I. Elortza ariko dira. Gauean afari herrikoia eta DJekin festa izango da. □

ZERBITZUAK

■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaina: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

+ FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 Tel. 943 336077
- Gauetan: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 Tel. 943 361774



Jaiak aurrera ateratzen modu desberdinan lagundu diguzuenoi eta jaietan Harriatsun gurekin izan zaretenoi
ESKERRIK ASKO
JAI BATZORDEA

Fono tel



Euskaltel Hautaketa / Selección

Murritz zure deien kontua

Abantailak:

- 1050 aurrezenbakia ez duzu markatu behar
- Tarifa askoz merkeagoak izango dituzu

eta gainera...
musika CD bat
izango duzu opari

Banatzale Ofiziala

Euskaltel

Kardaberaz kalea 68
Tel.: 943 33 60 25
Faxa: 943 33 50 79
20.120 HERNANI